

Prentsa oharra

Nota de prensa



IA 3.000 BIDAIARIK ERABILI ZUTEN AUTOBUSA GABONETAN

Hiriko erdialdearen eta Illunbeko disuasio-aparkalekuaren arteko doako autobus-zerbitzuak 2.711 bidaiari izan ditu Gabonetako denboraldian.

Cristina Lage Turismo zinegotziak adierazi duenez, "sendotu egin da zerbitzu hori, eta, are gehiago, ezaguna da Donostiara eguna pasatzera edo erosketa batzuk egitera joan ohi direnen artean. Lehen esperientzia arrakastatsua izan genuen udan, eta neguko eta Gabonetako denboraldian, autobus anezkak datu garrantzitsuak izan ditu berriro."

Horrela, azaroaren 29tik urtarrilaren 8ra 2.711 erabiltzaile izan ziren, abenduko lehen hamabostaldiko eguraldi txarra ere kontuan hartuta, ihesaldi bat egitera bultzatzen ez zuten etengabeko euriteekin.

Lagek adierazi duenez, Donostia Turismoa zerbitzu hau berrargitaratzeko lanean ari da Aste Santurako, udarako eta urtean pertsona asko hirira erakartzen dituzten hitzordu handietarako.